

EUSKARAREN Berripapera

aurkibidea

1

- *Bidegileak* bilduma-ko ale berriak kalean

2

- **PERTSONAJEA:**
Dionisio Amundarain, "Anton Abbadia saria 2001"
- **LABURRAK:**
Deustuko Unibertsitatearen eta El Correoren euskara ikastaroa
Koldo Ameztoren kontalari tailerrak
- **AGENDA:**
Expolangues azokaren 20. aldia

3


- Maskaradak Eskiula eta Gamere-Zihia herrien eskutik
- "Santiago Onaindia" Ikerketa Beka

4

- *Esquemas de Euskara. Gramática y usos lingüísticos* lan berria
- *Gure Irratia*, 20 urte normalizazioaren alde lanean

Bidegileak bildumako ale berriak kalean

Elizgizonak, musikariak, sindikalistak eta sustatzaileak protagonista



Euskara sendotu, zabaldu eta normalizatzeko saioretan eragina izan dutenen biografia biltzen duen *Bidegileak* bildumako sorta berriak kaleratu ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Bildumako 22, 23, 24 eta 25. aleak dira eta launa bidegileren bizitza eta lanak erakusten dituzte, zenbait ezaugarriren arabera. Esaterako, 22. karpeta elizgizonez osatu da eta, bertan, erlijioa (liturgi eta katekesi liburuak, Biblia, predikuak,...) aztergai izan duten itzultzaile, euskaltzale eta euskaltzain zenbait ageri dira: Raimundo Olabide (Gasteiz, 1869 - Okzitaniako Tolosa, 1942), Jaime Kerexeta (Elorrio, 1918-1998), Pierre Narbaitz (Azkarate, 1910 - Kanbo, 1984), eta Polikarpo Iraizozkoa (Iraizotz, 1897 - Lekaroz, 1980).

Musikariak nagusi 23. karpetan

Gabriel Lertxundi (Ziburu, 1908 - Beloke, 1995), Aita Donostia (Donostia, 1886 - Lekaroz, 1956), Tomas Garbizu (Lezo, 1901 - Donostia, 1989) eta Estitxu (Beskoitze, 1944 - Bilbo, 1993) ageri dira 23. karpetan, hau da, musika egin eta jotzen, musika-ondarea iker-tzen, kantatzen eta antzeko lanetan nabarmendu diren lau pertsona. Lau musikarietan, erlijio lanak ondu zituzten Aita Donostiak eta Gabriel Lertxundik. Estitxuk, berriz, kantari nabarmendu zuen bere burua.

Gizarte-arazoak kezka 24. karpetan

Karpeta hau gizarte-arazoez biziki kezkatu ziren lau egilek osatu dute. Liburuak idatzi eta euskartu zituzten eta politikan nahiz sindikalismoan gogotik lan egin zuten: Juan Bautista Eguzkitza (Lemoa, 1875-1939), Poli Larrañaga (Soraluze, 1883 - Baiona, 1956), Jesus Intxausti *Uzturre* (Tolosa, 1912 - Arratzu, 1993) eta bizirik irauten duen Polixene Trabudua (Sondika, 1912).

Kultura zaletasuna 25. karpetan

Euskara landu eta zabaltzeko jardueretan egindako ahaleginengatik omendu nahi diren lau egilerek osatu dute karpeta hau: Jose Artetxerekin (Azpeitia, 1906 - Donostia, 1971), Bingen Ametzagarekin (Algorta, 1901 - Venezuela, 1969), Iñaki Olabeagarekin (Donostia, 1901 - Irun, 1983), eta Perpetua Saraguetarekin (Meskiritz, 1905-1986).

Bidegileak bildumako aleak irakurzale orori zuzendurik daude, 2.300 aleko tirada dute, eta Eusko Jaurlaritzaren web-gunean ere ageri dira, www.euskadi.net/euskara helbidean. Oraingoan, gainera, 23, 24 eta 25. sortako liburuxkak formatu berrituan datoz.

2002. urtean beste lau karpeta prestatuko ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eta, bertan, bertsolaritza eta herri-kultura, gerra ondoko olerkaritza, euskara ikertzen eta irakasten jardunak, eta euskal irakaskuntzan nabarmendu diren pertsonen bizitza eta lanak jasoko dira.

Laburrak

Deustuko Unibertsitatearen eta El Correoren euskara ikastaroa



Oinarritzko euskara ikastaroa abiarazi dute Deustuko Unibertsitateak eta El Correok elkarlanean. "Eguerdi on" du izena eta bi erakundeek 1998an burutu zuten "Egun on" ikastaroaren jarraipen da. 138 fitxaz osaturik dago eta egunero argitaratzen da egunkarian urtarillaren 14az gero. Asteburuetan, berriz, astelehenetik ostiralera landutakoa berrikusteko ikasgaiak argitaratzen dira. Ikastaroa Internet bidez ere egin ahal da www.elcorreodigital.com helbidean.

Koldo Ameztoren kontalari tailerrak



Kontalari tailerrak sortzeko ekimena abiarazi du Koldo Ameztok, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan ari ohi den ipuin kontalari bakarretakoak. Azaroan ekin zion lanari eta bost lagun bildu zituen. Bilkuren helburu da Iparraldean kontalari ariko diren pertsonak trebatzea, eta horrekin batera, esperientziak trukatu, ipuinak kontatu eta ikuskizun berrien gaineko informazioa zabaltea.

Agenda


Expolangues azokaren 20. aldia



Urtarrilaren 30etik otsailaren 2an egin da Parisen Expolangues azokaren 20. aldia. "Munduko hizkuntzak, hizkuntzen mundua" izenburu izan duen azoka honetan Irlanda ohoratu dute aurten eta aurreko urteetan bezala, bertan izan da Eusko Jaurlaritza ere, euskara eta euskal kulturazko gai eta produktuak erakusten. Hizkuntza nagusien ondoan, zeinuen hizkuntza, grekoa, arabera, bretoiera eta esperantoa ezagutzeko aukera ere izan da.

PERTSONAJEA

Dionisio Amundarain "Anton Abbadia saria 2001"



GOIERRITARRA

Dionisio Amundarainek jaso du 2001eko Anton Abbadia saria. Gipuzkoako Foru Aldundiak euskararen normalkuntzaren alde Amundarainek urte askoan egindako lan isila saritu nahi izan du. Zazpi lagun izan dira epaimahaikide: Luis Bandres, Lorea Leanizbarrutia, Balere Bakaikoa, Mari Jose Olaziregi, Andoni Sagarra, Karmele Esnal eta Sebastian Kerexeta.

Dionisio Amundarain Itsasondon jaio zen 1930ean. Hamaika anai-arreba izan ziren. Hamar urte zituela Lazkaoko Beneditarren komentura jo zuen eta bertan burutu zituen oinarritzko heziketa eta nobizio-ikasketak. Ondoren Teologia ikasi zuen Parisen, eta Filosofia Erroman. Hiru-lau urte eman zituen Estibalitzen (Araba), eta Lazkaora itzuli. Hemen, erabat murgildu zen euskararen munduan eta eskolak ematen eta itzulpenak egiten hasi zen. Klandestinitatean jardunagatik ere, hamaika lan egin ahal izan zuen komentuko giroa lagun. Parte hartu zuen Goierriko Euskal Eskolaren sorreran, gau-eskolak zabalitzen lagundu zuen eta, saria bitarte izan dela, Goierriko hamazazpi erakunde, talde eta elkartek aitortu dutenez, "euskara eta kulturagintza mailan oinarritzko laguntza" eman zion beharrean zegoenari.

Dionisio Amundarainek euskararen sustapen eta normalizatorako bizi-tza osoan egindako lan mardula saritu nahi izan du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Izan ere, Goierriko euskalduntze eta alfabetatzeko eskolen sortzaile, irakasle, zuzentzaile eta itzultzaile izan da fraide beneditarra.

Saria jasotzerakoan, euskalduntze eta alfabetatzean jarduten duten eta jardun dutenei, itzulpengintza inolako formaziorik gabe landu zutenei eta egun lantzen dutenei, eta euskarazko luma lanean ari direnei eskaini zien 2001eko Anton Abbadia saria. Bestalde, hamaika lan eginagatik ere, bat duela maitean aitortu zuen Dionisio Amundarainek: "Dudarik ez dago: *Elizen arteko Bibliaren* itzulpena da lan zoragarri eta ikusgarriena. Talde lanean egin genuen, eta euskara bizi-bizian egitea lortu genuen".



GOIERRITARRA


Maskaraden garaia da

Eskiula eta Gamere-Zihiga herriak dira aurtengo egileak

Eguberrien ondotik, Maskarada garaia dute Zuberoan urtarrilaren 13az gero. Aurten, gainera, bi maskarada ibiliko dira Zuberoako 21 herritan eta Nafarroa Behereko Donaixti-Ibarren. Bi herri egileak Eskiula eta Gamere-Zihiga izango dira. Bien artean antolatzea ezinezkoa izan da eta, ondorioz, bi maskarada izango dira aurten Zuberoako herrietan barna, 1992an bezala (orduan Altzürükük eta Eskiulak egin zituzten).

Dudarik gabe, merezimendu handiko gauza da Gamere-Zihigak maskarada egitea, ehun urte baino gehiago baitira herri honetan maskaradarik egiten ez zena. Kontuan har 120 lagun besterik ez dela bizi herri honetan eta 35 dantzarik osatuko dutela taldea.

Eskiulan, bestalde, 520 lagun bizi dira eta aspaldi dira dantzariak bertan. Hamar urte igaro dira azken maskaradak egin zirenetik eta ohiturak bizi-bizi irauten du. Aurten, gizonezkoz baino ez dituzte egingo maskaradak eskiulatarrek, 1992an emakumezkoak bakarrik ari izan baitziren.



ZUBEROAKO MASKARADAK

| | Eskiulako Maskarada | Gamere-Zihigakoak |
|-------------------------|----------------------|-------------------|
| Urtarrilaren 13an | Eskiula | Gamere |
| Urtarrilaren 20an | Urđiñarbe | |
| Urtarrilaren 27an | Donaixti-Ibarre..... | Ligi-Atherei |
| Otsailaren 3an | Iruri | Barkoxe |
| Otsailaren 10ean | Garindaine..... | Altzai |
| Otsailaren 17an | Muskildi..... | Atharratze |
| Otsailaren 24an | Montori | Arrokiaga |
| Martxoaren 3an..... | Atharratze | Altzürükük |
| Martxoaren 10ean..... | Urđiñarbe | Aloze |
| Martxoaren 17an..... | Larrañe | |
| Martxoaren 23an..... | Gotaine-Irabarne | |
| Martxoaren 24an..... | | Zalgize |
| Martxoaren 31an..... | Barkoxe | Idauze |
| Apirilaren 7an | Lakarri | Santa Grazi |
| Apirilaren 17an | | Sohüta-Hoki |



"Santiago Onaindia" Ikerketa Beka

Martxoaren 22a, proiektuak aurkezteko azken eguna

Amorebieta-Etxanoko Udalak Euskal Literaturaren alorrean ikerketa sustatzeko asmoz, bi urteroko ikerketa bekaren deialdia egin du Santiago Onaindia olerkari eta idazlearen omenez, haren lanak jarraipen izan dezan, ikerketan eta sorkuntzan.

Proiektuak banaka nahiz taldean aurkez daitezke, originalak eta argitaragabeak izan behar dute, eta

euskaraz, gazteleraz edo frantsesez egin ahal dira. 6.010 ko diru saria izango du irabazleak, eta urtebeteko epean burutu beharko du lana. Dokumentazioa aurkezteko epea 2002ko martxoaren 22an itxiko da. Zehaztasunak, Amorebieta-Etxanoko udaletxean bertan, 946300002 telefonoan, edo idazkaritza@amorebieta.net helbidean.

Esquemas de euskera. Gramática y usos lingüísticos lan berria

Euskarara hurbildu nahi dutenentzako eskuliburua

Erdaldunak euskararen mundura hurreratzen laguntzeko *Esquemas de euskera. Gramática y usos lingüísticos* liburuxkaren edizio berria kaleratu da. Miren M. Billelabeitiak idatzi duen eskuliburua HABEren laguntzaz argitaratu du Centro de Lingüística Aplicada Palas Ateneak.

Lan honek, gazteleraren bidez euskararen egitura nagusiak aurkezten ditu 26 fitxatan. Fitxa-sistema denez, informazio trinko eta ugaria biltzen da bertan. Lan honetan eskemak dira ardatz. Eskema labu-

rrak, argiak eta erabilgarriak dira eta gai bakoitzean teoriarik orokorrenak biltzen dira, bai eta salbuespenik ohikoenak ere. Hirurogei orrialdetan zehar irakurleak hainbat informazio du ortografia eta fonetikaz, generoz, hitzen osaketaz, mugatzaile eta izenordainei buruz, adjektibo eta adberbioez, aditzaz eta esaldiak osatzeari buruz.

Liburukia atera eta sar daitezkeen fitxa-sistema bidez egina dago. Neurri txikiko fitxak izanik, oso liburuki erabilerraza da.

Oinarrizko gramatika honen bitartez ikasleak irakaslerik gabe hurreratu ahal izango dira hizkuntzaren gramatika eta egituretara eta, ondorioz, HABEK arreta berezia jarriko du Euskal Herritik kanpora, Estatuan eta Latinoamerikan, diruz babesten dituen euskaltegi eta euskal etxeetara hel dadin.



| DENOMINACIÓN | INDETERM. | DET. SING. | DET. PLURAL | PL. CERCANIA | ESPAÑOL | FUNCIÓN |
|-----------------------|-----------------------------------|---|--------------------------------|----------------------------------|--------------|------------------|
| PROLATIVO NORITZAT | -tzat | — | — | — | por | |
| -TZAT | laguntzat hartu (tomar por amigo) | | | | | |
| MOTIVATIVO NORENGATIK | -(r)engatik | -arengatik | -engatik | -ongatik | por causa de | C.C. causal |
| -(R)JENGATIK | semerengatik (por un/los hijo/s) | euriarengatik (por la lluvia) | semeengatik (por los hijos) | semeongatik (por estos hijos) | | |
| INESIVO NON | -(e)tan | -(e)an | -etan | -otan | en | C.C. lugar |
| -N | etxetan (en una/s casa/s) | etxean, goizean (en la casa, por la mañana) | etxeetan (en las casas) | etxeotan (en estas casas) | | |
| ABLATIVO NONDIK | -(e)tatik | -(e)itik | -etatik | -otatik | de, desde | C.C. lugar |
| -TIK | etxetatik (desde una/s casa/s) | iazitik (desde el pasado año) | etxetatik (desde las casas) | etxeotatik (desde estas casas) | | |
| ADLATIVO NORA | -(e)lara | -(e)ra | -etara | -otara | a | C.C. lugar |
| -RA | etxetara (a una/s casa/s) | egunetik egunera (de día en día) | etxeetara (a las casas) | etxeotara (a estas casas) | | |
| ADLATIVO NORANTZ | -(e)tarantz | -(e)rantz | -etarantz | otarantz | hacia | C.C. de aproxim. |
| -RANTZ | etxetarantz (hacia una/s casa/s) | gauerantz (hacia la noche) | hiruretarantz (hacia las tres) | etxeotarantz (hacia estas casas) | | |

Gure Irratia, 20 urte normalizazioaren alde lanean

20 urte bete berri ditu Baionako *Gure Irratiak*. 1981ean sortu zenean, irratia euskaraz soilik egin behar zela izan zuen oinarrizko gogoeta, betiko topikoetarik ihes eginez, bertsolariak, kantaldiak, mezak, nekazaritza eta artzaintzari zegozkion gaiak besterik ez baitziren lantzen euskaraz, modernoak bazter utzirik. Ahozko komunikazioa helburu duelarik, *Gure Irratia* herritarren hizkuntzaren erabiltzen saiatu da. Euskara batua eredu hartu gabe ere, haren norabide nagusiak hartu dituzte, Iparraldeko euskara batua baliatuz, *Herria* astekariak eredu bilakatua.

Berriemaileen saioetan eta elkarrizketetan, aldiz, tokiko euskara erabiltzera jo dute irratiko esatariek.

Hasieratik, euskara berri baten pizteko gune izan da *Gure Irratia*, euskalkietan oinarritu ahozko hizkuntza eta euskara jasoagoa uztartu baitituzte. Egun ere, baitezpadako laboratoriora da irratia, euskaldun berrien euskara, euskalkiak eta euskara batua nahasten baitira, biharko euskararen bultzatzeko.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-Sosoaga@ej-gv.es

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.:

e-posta: